

« Tradizioa, egia hutsa ote da ? »

**Sorkuntzaren erronkak Euskal Herrian**

**2016ko ekainaren 3an, ortziralez- 19 :00- Baionako fakultateko A anfiteatroa--Dohainik**

Euskaldunak beren ohiduren preso ote lirateke?

Tradizioa itogarria ala sorkuntza eragile ote da ? Suerte ona asko partekatzen den mundu honetan ala arrasta bat kultura berri nahi dutenentzat?

Gauza bat ondareztat ekartzeak zaintza bermatu ote du ala ausardia artistikoa hozten ?

Euskal kultur erakundeak, euskal kultura mugimenduak aurre egiten dien galdera horietaz eztabaidatzea proposatzen dizue :

**2016ko ekainaren 3an, arratseko 19.00etan, Baionako fakultateko A anfiteatroan.**

Gai horietan adituak diren ondoko bost mintzalariak etorriko zaizkigu beren azterketak partekatzeko eta ikusmolde trukaketa laguntzeko :

**Birgit Ellinghaus**, munduko musiketan berezitua

**Xabier Itçaina**, Bordeleko Zientzia Politikoen Institutukoa, CNRS-ko ikerlaria

**Gérard Lenclud**, etnologoa, CNRS-eko ohorezko ikerketa zuzendaria

**Anne-Christine Taylor**, etnologoa, Pariseko Quai Branly museoan egona

**Pantxika Telleria**, Euskal Herriko koreografoa, Elirale konpainiaren sortzailea

Gaualdia **Denis Laborde** antropologoak kudeatuko du (CNRS-EHESS).

## **OHITURAREN JARRAIKITZAILE IZATEAK ZER ERRAN NAHI DU ?**

**Gérard Lenclud**, etnologoa, CNRS-eko ohorezko ikerketa zuzendaria

*Luzaz uste izan da tradizioak beren indar propioaz, transmisioaren bidez, nagusitzen zirela. Eta hala mantendu zirela denboran zehar. Ohitura baten jarraikitzaile izatea arbasoen ganik genuela aitortzea zen. Tradizioak behartzen bagenitu bezala ! Gero, ikuspegi hori erabat aldatu da. Gérard Lenclud-k bi ikuspegien uztartzea proposatzen du :*

*1. Ohitura baten oinordeko izatea ohitura hori bereganatzen saiatzea bada, orduan « alderantzizko filiazio » baten parean gaude (Jean Pouillon): oinordekoak du atxiki nahi duen ohidura hautatzen, eta ez alderantziz.*

*2. Jarraikitzen zaion ohitura, beraz, orainean eraikitzen bada, tradizio oro asmakuntza hutsa izan ote liteke? Bistan da ezetz! Zeren ezinezkoa baita hutsetik asmatzea! Ohitura bati jarraiki ahal izateko, iraganeko « zerbait » egon behar da orainean...*

## **SORKUNTZA ISILEAN EGIN DAITEKEA? OHIKO BESTA OHITUREN TRANSMISIOA ETA ALDATZEA EUSKAL HERRIAN**

**Xabier Itçaina**, soziologoa (CNRS, Bordeleko Zientzia Politikoen Institutua).

*Besta ohitura batez -errituala, protokolozkoa ala jostagarria izan dadin- « tradizionala » dela errateak, transmisio molde berezi bati eta formen-erranahiaren iraunkortasunari erreferentzia egiten dio. Alta, Euskal Herriko besta mota batzuk aztertzeak erakusten du*

*horien iraunkortasun eta bizkortasuna nahasketa sotil bati zor diotela... transmisioz eta asmakuntzaz, talde eta banakako ekimenez osaturiko nahasketa bati. Formen iraunkortasunaren giblean, praktika horien esanahien aldaketa sakonak ikus daitezke.*

## **UNESCO ERAKUNDEA ETA GLOBALIZAZIOAREN BOLIZKO DORREA**

**Birgit Ellinghaus**, munduko musiketan berezitua, "Unterwegs" programaren eta honen batzorde zientifikoaren arduraduna 2012-2016 artean Berlingo Filarmonian, UNESCO-ren aleman adarreko kulturaren nazio-batzordekidea

*Ezagutzen dugun mundu globalizatuan, kultur ondare materiagabearen aldeko UNESCO Hitzarmenak (2003) kulturak babesten ditu eta betebeharrak sortzen izenpetzen duten alderdi guzientzat (estatu erakunde, kultur erakunde nagusi, gizarte zibila). Gaur egun, 167 estatuk izenpetu dute. Alemanian, Hitzarmenaren izenpetzearen ondorio ezezagunetarik bat honako hau da: kontzertu gela nagusiek engaiatu behar izan dute munduko kultur aniztasuna baloratzera. Haietarik ospetsuenetariko batzuk hasi dira hitzarmenaren hitzen arabera egokitzen eta musika ekoizpen garaikide anitzen programatzen. Munduko Musikei eskaini Berlingo Filarmoniaren Unterwegs («bidean») programa eta Francforteko Operak abian jarri duen antzeko programa dira irekidura horren bi adibide enblematikoenetarik.*

## **TRADIZIOA EDO GAUZAK ONDARETZAT EKARTZEAREN PARADOXAK. ZENBAIT KASU AMAZONIAN**

**Anne-Christine Taylor**, etnologoa, Pariseko Quai Branly Museoko Ikerketa eta Hezkuntza Saileko ohorezko zuzendaria

*Nortasunaren gaiak gizarte garaikide guziak zeharkatzen ditu, Amazoniako eskualdeak barne. Gizarte guziak «zarena bihur zaitez» nortasun aginduaren pean daude. Baina nondik dator agindu hori? Nor da haizu halako agindu baten botatzera? 2003ko UNESCO Hitzarmenean oinarritzen den agindu horrek ez ote du orozgain talde-interesaren izenean mintzo den erakunde baten autoritatea azpimarratzen? Izan ere, zergatik saiatu tradizioak ondare bihurtzen?*

*Amazoniako adibide batzuk oinarritzat hartuz, nortasun egozpenaren eta tradizioaren arteko lotura ondaretzat hartzerakoan iragaten dena aztertuko du A. C. Taylor-ek.*

## **SORKUNTZA GARAIKIDEAREN ERRONKAK DANTZA-GORPUTZAREN BIDEZ EUSKAL HERRIKO JAUZIEN SISTEMAN.**

**Pantxika Telleria**, koreografoa, Elirale konpainia.

*Dantza-gorputzak, niretzat, koreografo gisa, euskarria izan nahi du, lehengaia, «eztabaida publikoko leku» bihurtzen den tresna bisuala, «intimoaren lekuari» lotua. Izan ere, galderak planteatu behar dizkio gizarteari modu eta baloreak aktibatuz eta eztabaidatuz: ondorioz, betekizun guztiz politikoa betetzen du.*

*Dantza-gorputzaren sorkuntza garaikidearen apustuek mugimendu dantzatuaren kontzientzia hartu behar dute euskarritzat, talde inkontzientearekin loturan. Bestela errana, nola lotzen da «eztabaida publikoko lekua» «intimoaren lekuarekin» gaur egun Euskal Herrian, gure Mutxikoen sistemaren baitan?*